

BeeGuards ikerketa-sarea 15 herrialdeetako 27 bazkidek osatzen dute; besteak beste, unibertsitate, ikerketa-institutu, teknologia-enpresa, erlezaintzako enpresa, elkarte eta aholkulariek.

KOORDINAZIOA HURRENGO
TALDEAREN ERANTZUKIZUNA
DA:



Lan-programaren ikuspegi multieragilearen eta diseinu ireki zein inklusiboaren bidez, BeeGuards-en taldeak interes zabal eta anitzak dituzten kideak biltzen ditu.

Komunitate gisa, 4 urteko proiektu honetan, nazioarteko landa-azterketa bat egingo dugu, atalaseetan oinarritutako kudeaketa-kontzeptu berritzaile bat eta erresilientziarako hazkuntza-estrategia azeleratu bat ebaluatu eta baliozkotzeko.

Ikerketa osagarriei esker, argitu ahal izango dugu kudeaketak eta klimak nola jarduten duten erle meliferoen eta beste polinizatzaile batzuen gain.

Izena eman herritar zientzialari bezala parte hartzeko!

Parte harte nahi duzu?



Gure ekintza ireki eta partizipatiboetan **epe luzerako tresna komunitario autojasangarri bat** garatzea sartzen da: WikiaBEEdia webgune bat. Bertan, kontzeptu berritzaileak eta BeeGuarden emaitzak partekatu eta sustatuko ditugu, erlezaintzako praktika iraunkorren bilaketa barne.

BeeGuards-en azken helburua erlezaintza **erresilientea lortzeko** beharrezkoa den ikuspegi-aldaketa agerian uztea da, kolonien erresilientzia ze hazten duten mekanismoen ikuspegi holistikoa emanez.

BeeGuards-ek erakutsiko du nola babestu **dezakegun polinizatzaileen biodibertsitatea**, etorkizunean polinizazio zerbitzuak bermatzeko, horrela prestatuz Europako erlezaintzako sektorea klima-aldaketari aurre egiteko.



Europako Batasunak finantzatua

Grant Agreement No. 101082073

Hala ere, adierazitako iritziak eta ikuspuntuak egilearenak edo egileenak baino ez dira, eta ez dituzte nahitaez Europar Batasunarenak edo Europako Batzordearenak islatzen. Europar Batasuna eta dirulaguntza ematen duen agintaritza ez dira haien erantzulezat hartuko.

BeeGuards

**erlezaintza erresilienteago
batengatik**



BeeGuards-en helburua Europako erlezaintzako sektorearen eta beste sektore batzuen erresilientzia indartzea da, kudeaketa-praktika iraunkorren, hazkuntza-estrategia berrien eta aurreikuspen-tresna analitiko eta digitalen bidez, sektorea ingurune aldakor batera egokitzeko.

info@beeguards.eu
www.beeguards.eu

WP1 - ERRESILIENTZIARAKO KUDEAKETA



- Barroa kudeatzeko kontzeptu berritzaile baten efektuak ikertzea
- Nazioarteko landa esperimentu bat egitea (11 herrialde, 450 kolonia) datuak, laginak eta matrizeak hornitzea beste lan-paketeetan analizatu ditzaten
- Instituzioek kudeatutako erlategietan eginiko berrikuntzak komunitateak kudeaturiko erlategietara transferitzea ezagutza, erlezainek ikerketarekin jarrai dezaten herritarren zientziaren ikuspegiaren bidez

WP2 - ERRESILIENTZIARAKO ERLEEN HAZKUNTZA



- Erleak hazteko programetan hautespen-elementu naturalak erabiltzea eta ebaluatzea barroarekiko eta ingurumen-estresarekiko erresistentzia sustatzeko
- Hazkuntza azeleratuko zikloaren eraginkortasuna eta funtzionaltasuna baliozkotzea
- Kriobanku-sare bat osatu erlearen espermarentzat, eta erle enbrioiak babesteko prozedura normalizatu bat zehaztu

WP3 - MONITORIZAZIOA ETA MODELIZAZIOA



- ~ 250 erlauntza digital hedatu nazioarteko landa-azterketa osoan, datuak denbora errealean biltzeko
- Datuak integratzea eta ikertzaileei eskura jartzea
- Modeloak implementatzea erabakiak hartzen laguntzeko sistema gisa

WP4 - HOLOBIONTEA



- Erleen ikerketa hologenomikarako metodo estandarren eskuliburu bat publikatzea
- Metodo 'omiko desberdinak landa- eta laborategi-esperimentuetan integratzea
- Erle eztigileen erresilientzia sustatzen duten konbinazio genetiko eta mikrobiano espezifikoak zehaztea, kudeaketaren kontzeptu berritzailearen arabera

WP5 - IMMUNITATEA ETA FISILOGIA



- Paisaiaren nutrizio-balioak, luraren erabilerak, eta erle kolonien kudeaketak erleen osasunean dituzten ondorioak ulertzea
- Erleen fisiologia eta erantzun immunea ikertzea, maila-sozialetik hasi eta molekularreaino
- Saiakuntza transkriptomikoak adimen artifizialaren ikuspegiarekin integratzea

WP6 - PARASITOAK ETA PATOGENOAK



- Klima-aldaketak bazka-jardueran duen eragina aztertzea
- Etorkizuneko patogenoen eta izurriteen sakabanaketa modelizatzea
- Erlezaintzako praktikak konpilatzea eta iradokitzea, izurriteen eta patogeno sortu berrien inpaktua arintzeko

WP7 - INGURUMENAREN EBALUAZIOA



- Erlezaintza praktikei buruzko bizi-zikloaren ebaluazioa egitea
- Proposatuako kudeaketa berritzailearen kontzeptuak ingurumenean duen eragina ikertzea
- Erlezaintzaren karbono-azterna murrizteko iradokizunak egitea

WP8 - ERLE ETA POLINIZATZAILE BASATIAK



- Polinizatzaileen arteko lehia potentziala ebaluatzeko jarraibide metodologikoak argitaratzea
- Nekazaritza paisaiaren eskalan, erlezaintzak polinizatzaile basatietan duen inpaktua arintzeko kudeaketa-irtenbideak identifikatzea
- Herritarren zientzia hobetu kudeatu gabeko polinizatzaileen funtsezko eginkizun ekologikoari buruzko ezagutza eta kontzientziarazioa landuz

WP9 - HEDAPENA



- Proiektuaren helburuak, lan-plana eta emaitzen epe-luzerako diseminazioa ikusle askori jakinaraztea
- Proiektuaren bidez alderdi interesatuekin batzea sorkuntza bateratua bultzatzeko
- Gizartearekin interakzioa sustatu 'bilaketa' eta 'WikiBEEdia' baten bidez

WP10 - PROIEKTUAREN KUDEAKETA



- Proiektua eraginkortasunez eta behar bezala gauzatzen dela bermatu
- Proiektuaren aurrerapen zientifikoa eta teknikoa gainbegiratzea, lan-pakete guztietan ongarriztatze gurutzatu optimoa ahalbidetzeko
- Finantzaketa-erakundearekin (Europako Batzordearekin) harreman formalak eta administratiboak izatea



Parte hartu Herritar Zientifiko gisa!